# EUSKAL SOZIOMETROA 19

## 2002ko uztaila

*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

# Aurkibidea

**LABURPENA ... 1**

**FITXA TEKNIKOA ... 5**

**A – GAIA: AUTOGOBERNUA EAEN ... 7**

- Autonomia eta EAEko lurraldeak ... 8
- Autonomia Estatutuarekiko poztasuna ... 10
- Autonomia Estatutua eguneratzea ... 12
- Autonomia Estatutua aldatzea ... 14
- EAE, Nafarroa eta Iparraldearen arteko harremanak ... 15
- Espainiako Estatuaren lurraldea antolaketa ... 16
- Autodeterminazioa eskubidea ... 18
- Erreferenduma ... 20
- Autodeterminazioa eta bakegintza ... 22

**B - JARRERA POLITIKOAK ... 23**

- Begikotasun politikoak ... 24
- Buruzagi politikoak ... 26

**C - EGOERA BALORATZEA ... 28**

- Egoera ulertzeko modua ... 29
- Administrazioarekiko poztasuna ... 31

# Laburpena

Puntuz puntu

### *NOLAKO POZTASUN MAILA ADIERAZTEN DU EUSKAL BIZTANLERIAK AUTONOMIA ETA ESTATUTUAREN AURREAN?*

Euskal biztanleriaren %41ek uste dute **autonomia** onuragarria izan dela maila berdinean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) Lurralde Historiko guztietarako, eta %24k onuragarria izan dela guztiontzat, baina ez maila berdinean. Lurralde desoreka horretaz gehiago hitz egiten dute arabarrek eta herri txikietako biztanleek; hala ere, iritzi hori ez da beraien arteko gehiengoak duena.

Euskal biztanleriaren %37 pozik daude **Autonomia Estatutuaz**, %19 partzialki pozik sentitzen dira eta %20 ez dira batere pozik sentitzen. Pozik ez egoteko arrazoiak, bereziki Estatutuaren eskasia eta garapen falta dira. Euskal biztanleriaren %63ri Autonomia Estatutua eguneratzea eta gaur egungo egoerara egokitzea gustatuko litzaieke.

Autonomia Estatutuan **aldaketaren** bat planteatuko balitz, proposamen batzuen onarpena honako hau da: euskal biztanleriaren %62 Euskal Herriak etorkizuna erabakitzeko eskubidea sartzearen aldekoak lirateke; %60 Euskal Herriko EAEren, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko harremanak areagotzearen aldekoak; %58 autogobernu maila eskumen berriekin areagotzearen aldekoak; %57k autogobernu maila ez jaisteko bermeak eskatzen dituzte; %56k Euskadik Europan eta munduan ahots propioa izatea eskatuko lukete; azkenik, %51k Euskal Herria nortasun propioa duen herri bezala onartzea nahiko lukete. Kasuak kasu, ez lirateke neurri horiek sartzearen aldekoak izango %14 eta %21 bitartean.

Gehienbat Estatutua eguneratzearen eta proposamen berriak bertan sartzearen alde Batasuna, EA, EAJ eta EB-ren jarraitzaileak agertu dira. Gainera, azpimarratu behar dugu Autonomia Estatutuari buruzko galdera guztietan lau biztanletik batek ez duela erantzuten.

### *NOLAKO LURRALDE ANTOLAKETA NAHI DUGU EUSKAL HERRIRAKO ETA ESTATU ESPAINOLERAKO?*

Euskal biztanleriaren %22ri gustatuko litzaieke **EAE, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldea** hiru lurralde bereiztu izaten jarraitzea, beste %27ri lurralde bereizi gisa jarraitzea baina euren erakundeen arteko harremanak sarriagoak eta iraunkorragoak izan daitezela, eta %20k hiru lurraldeentzat estatu independentea nahiko lukete. Gainera %10ek hiru lurraldeekin euroeskualdea sortzea nahiko lukete baina gaurko Estatuen barruan mantenduz. Batez bestearen gainetik independentziaren alde egingo lukete euskara dakitenek (%41), beraien burua nazionalistatzat dutenek (%42) eta Batasunaren boto emaileek (%69).

**Estatu Espainola**ri begira euskaldunen %34k nahiago lukete autodeterminazio eskubidea onartzen duen Estatu bat, %25ek egungo egoera egokia dela uste dute eta %23k Estatuko autonomia erkidegoek autonomia gehiago izatea nahiko lukete. Autodeterminazioaren aukera gehiago defendatzen dutenak, hauexek dira: euskara dakitenak (%59), nagusiki euskaldunak sentitzen direnak (%60), nazionalistak (%62) eta Batasunaren (%78), EA-ren (%58) eta EAJ-ren (%52) boto emaileak.

### *EUSKAL HERRIAREN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA*

EAEko biztanleriaren %49k gogoratzen dute 1990. urtean **Eusko Legebiltzarrak** autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen zuen proposamena onartu zuela. Eta biztanleen %62k uste dute autodeterminazio eskubidearekin Euskal Herriaren etorkizun politikoa erabakitzeko eskubidea eskatzen ari dela eta %19k oraintxe bertan independenteak izatea.

EAEko biztanleriaren %71k Euskal Herriak bere etorkizunaz erabakitzeko erreferenduma deitzeko eskubidea duela uste dute. Eta %44k uste dute Espainiako Gobernuak Euskal Herrirako autodeterminazio eskubidea onartuko balu horrek bakea lortzen lagunduko lukeela. Espainiako

Gobernuak euskal gizarteari independentziari buruz askatasunez erabakitzen utziko balio eta erreferenduma egingo balitz %34k alde botatuko lukete eta %29k kontra.

Euskara dakitenen eta Batasuna, EA eta EAJ-ren boto emaileen artean Euskal Herriak erreferenduma izateko duen eskubidea defendatzen da neurri handiagoan eta handiagoa da, baita ere, independentziaren alde daudenen portzentajea.

### *NOLAKO BALORAZIOA JASOTZEN DUTE ALDERDIEK, ADMINISTRAZIOAK ETA BURUZAGI POLITIKOEK?*

0tik 10era bitarteko balorazio-eskala batean alderdi politiko bat bera ere ez da 5era heltzen; EAJ da punturik gehien lortzen duena (4.6), eta ondoren EA (3.8), EB (3.2), PSE-EE (3.2), PP (2.2), Batasuna (2.0) eta UA (1.7) datoz. Alderdi bakoitzeko boto emaileen artean, aldiz, alderdi guztiek 5eko puntuazioa gainditzen dute: EAJ-k (7.5), Batasunak (7.1), EA-k (7.0), PP-k (6.6), PSE-EE-k (6.3) EB-k (6.0) eta UA-k (6.0).

Buruzagi politikoen artetik, soilik Ibarretxe Lehendakariari ematen dio *nahikoa* (5.4) biztanleriak, jarraian datozen liderrak hauek izanik: Errazti (4.0), Arzalluz (3.5), Madrazo (3.4) eta Rodríguez Zapatero (3.3). Botoa beraiei ematen dietenen artean, ondoen baloratuta daudenak Ibarretxe (7.6), Errazti (6.6) eta Otegi (6.6) dira.

Nahiz eta alderdi eta buruzagi politikoekin desilusio handia izan **Euskal Administrazioarekin** dagoen satisfazioa altua da: biztanleriaren %68 gustora daude udalekin, %70 aldundiekin eta %67 Eusko Jaurlaritzarekin. Poztasunak behera egiten du Espainiako Gobernuaz ari garenean (%34) eta Europako Gobernurako (%37), baina gehienbat espainolak sentitzen direnen artean eta hauteskunde autonomikoetan PP-ri botoa emango lioketenen artean satisfazioa da nagusi.

### *NOLA DOAZ GAUZAK EUSKAL HERRIAN?*

**Gaurko egoeraren** balorazioaz EAEko biztanleriak 0tik 10era arteko eskala batean emandako puntuazioak, honako hauek dira: 6.5 bakoitzaren bizitzaz; 5.2 Euskal Herriko gauzen martxaz, eta 4.8 Estatu Espainolaren egungo egoeraz. Urtebete barrura begira, norberak bere bizitzaz 7.0 puntuatzen du, Euskal Herriko egoeraz 5.6, eta Estatu Espainolarenaz 5.0. Euren burua goiko gizarte-klasean kokatzen dutenek altuago puntuatzen dute beraien bizitza pertsonalaz, EAJ eta EA-ren boto emaileek euskal egoeraz eta PP-ko boto emaileek Espainiako egoeraz.

## Aurreko aldiekin alderatuta

1990. urtean euskal biztanleriaren %73k ezagutzen zuten, urte berean, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko Eusko Legebiltzarrak onartu zuen proposamena; gaur egun proposamen hori gogoratzen dutenen portzentajea %49koa da.

Beste urte batzuekin alderatuta, Autonomia Estatutuarekin dagoen poztasun maila, **autodeterminazio eskubidearen** esanahiaz jendeak ulertzen duena, edo Euskal Herriak bere etorkizunaz erabakitzeko erreferenduma deitzeko eskubidea duela pentsatzen dutenen kopuruak ez dira era adierazgarrian aldatu.

Alderdi politikoen puntuazioetan ez dago aldaketa adierazgarririk, urte hasieran atera zutenarekin alderatuta. Bestalde, Juan José Ibarretxe, **Lehendakaria**, aurreko urteetako 5.4an mantentzen da, 1998ko 4,8ko balorazioa nabarmenki hobetuz, baina 1999ko 5,6ra iritsi gabe.

**Egoeraren** balorazioa erdibidean dago eta 2000. urtetik ona gutxi aldatu da. Aldiz, Euskal Herriaren etorkizuna baikortasun gutxiagorekin ikusten da orain

(5.6) 2002ko otsailean baino (6.0), 1997. urtetik honako seriean momentu baxuenetako batean aurkitzen garelarik.

Administrazioarekiko poztasuna dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren seriea 80ko hamarkadan hasi zenetik momenturik hoberenetariko batean aurkitzen da orain, 40tik gorako poztasun-balantze positiboa mantenduz; bestalde, Espainiako Gobernua aurreko urteetakoa baino balantze negatibo txikiagoa du: -10 eta -20 bitartekoa.

## Beste eremu geografiko batzuekin alderatuta

**Estatu Espainoleko** eskualde desberdinetan autonomiak izan duen eraginaz, onura ekarri duela gehiago pentsatzen da EAEn beste autonomietan baino; eta bi lurraldeotan nagusiki uste bada onura orokorra izan dela, Espainian gehiago dira autonomiaren onura soilik eskualde batzuentzako eta kaltea beste batzuentzako izan dela esaten dutenak (%20) Euskal Herrian baino (%9).

Estatu Espainolaren lurralde antolamenduaz hitz egiterakoan, autonomia erkidegoetarako autodeterminazio eta independentziaren aukerak neurri handiagoan defendatzen dituzte EAEko biztanleek espainolek baino (%34 eta %8, hurrenez hurren). Eta espainolen gehiengoak (%45) gaur egungo autonomien Estatua defendatzen duen bitartean, EAEko biztanleriaren %25ek soilik defendatzen dute aukera hori.

## Azken finean

EAEko biztanleriaren %37 pozik sentitzen dira **Autonomia Estatutuarekin**, gehiengoa estatutua berriztatzearen eta proposamen berriak sartzearen aldekoak izanik, besteak beste, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea. EAEko biztanleen gehiengoak autodeterminaziorako erreferendumera deitzea defendatzen du; independentziaren aukera proposatuko balitz %34k aldeko botoa emango lukete eta %29k kontrakoa.

Egonkortzat jotzen da Euskal Herriko egoera. Alderdiek eta buruzagi politikoek biztanleriaren *nahikoa* lortu gabe jarraitzen dute, Ibarretxe Lehendakariak izan ezik, bera baita atari hori gainditzen duen bakarra. **Euskal Administrazioaren** hiru mailekin dagoen poztasun-maila altua da..

# Fitxa teknikoa

Informazioaren bilketa **2002ko maiatzaren 6tik 21era bitartean** egin zen, elkarrizketa pertsonalen bidez eta egituratutako galdesorta itxia erabiliz. Elkarrizketak etxez-etxe egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko lagin adierazgarri bati, bai EAEko mailan, bai Herrialde bakoitzeko mailan.

**Lagina** 18 urte edo hortik gorakoekin osatuta dago eta honela banatu zen herrialdeka: 617 pertsona aukeratu ziren Araban, 1266 Bizkaian eta 968 Gipuzkoan. Horrela, guztira 2851 pertsona elkarrizketatu ziren. Elkarrizketatuak aukeratzeko prozedura polietapikoa eta estratifikatua erabili zen, bide aleatorioak jarraituz –214 hasiera puntutik[1]-, eta sexu, adin eta lan egoera kuoten arabera aukeratu ziren. Gero ponderazioa egin zen herrialde bakoitzean, populazioa eta 2001eko maiatzaren Hauteskunde Autonomikoen emaitzen arabera.

Azterlana **diseinatzeaz**, emaitzak **aztertzeaz** eta txostena **idazteaz** Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea arduratu da, ez beste inor. Informazioa biltzeaz, ordea, *Ikertalde* enpresa arduratu zen. Hona hemen enpresa horren helbidea: Avenida de la Libertad, 17-19, 20004 - Donostia-San Sebastián.

Lagin osorako **errakuntza**, hau da 2851 pertsonena, lagina erabat aleatorioa izan balitz egotzi beharrekoa, ±%1,9koa da EAE guztian; konfiantza maila, %95,5ekoa; eta p=q=0,5.

[1] Hasiera puntu fisiko zehatza zoriz aukeratu zen hauteskunde-sekzio bakoitzean dauden “kale-tarte” multzotik. Hauteskunde-sekzioa da analisirako erabiltzen dugun unitate geografikorik txikiena. Kale-tarteak Eustatek egiten dituen kale-izendegietatik atera dira.

**Kontrola** era egin da. Inkesten %46 telefonoz kontrolatu dira eta %9 etxez-etxe. Gainera, behar diren kontrol informatiko guztiak –logikoak, koherentziakoak eta mailakoak- egin dira lortutako inkesta bakoitzean.

# A – Gaia: Autogobernua EAEn

- Autonomia eta EAEko lurraldeak
- Autonomia Estatutuarekiko poztasuna
- Autonomia Estatutua eguneratzea
- Autonomia Estatutua aldatzea
- EAE, Nafarroa eta Iparraldearen arteko harremanak
- Espainiako Estatuaren lurraldea antolaketa
- Autodeterminazioa eskubidea
- Erreferenduma
- Autodeterminazioa eta bakegintza

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia eta EAEko lurraldeak

## (Guztirak)

**ZURE USTEZ AUTONOMIA MESEDEGARRIA IZAN DA EUSKADIKO PROBINTZIA GUZTIENTZAT, MESEDEGARRIA GUZTIENTZAT BAINA EZ NEURRI BEREAN, PROBINTZIA BATZUENTZAT MESEDEGARRIA ETA BESTE BATZUENTZAT KALTEGARRIA EDO DENENTZAT KALTEGARRIA IZAN DA?**

| | EAE ES 02 MAI | ESPAINIAKO ESTATUA 96 ABEN* |
|---|---|---|
| MESEDEGARRIA GUZTIENTZAT | 41 | 36 |
| MESEDEGARRIA GUZTIENTZAT BAINA EZ NEURRI BEREAN | 24 | 25 |
| BATZUENTZAT MESEDEGARRIA ETA BESTE BATZUENTZAT KALTEGARRIA | 9 | 20 |
| DENENTZAT KALTEGARRIA | 4 | 3 |
| ED/EE | 23 | 15 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 |

* CIS (1996: 22). TOKI BAKOITZEAN BERTAKO AUTONOMIAZ GALDETU ZEN. GALDERA HAU EZ ZEN EGIN PROBINTZIA BAKARREKO ERKIDEGOETAN; ALEGIA, ASTURIASEN, BALEAR IRLETAN, KANTABRIAN, MADRILEN, MURTZIAN, NAFARROAN ETA ERRIOXAN

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia eta EAEko lurraldeak

## (Taldeka)

***ZURE USTEZ AUTONOMIA MESEDEGARRIA IZAN DA EUSKADIKO PROBINTZIA GUZTIENTZAT, MESEDEGARRIA GUZTIENTZAT BAINA EZ NEURRI BEREAN, PROBINTZIA BATZUENTZAT MESEDEGARRIA ETA BESTE BATZUENTZAT KALTEGARRIA EDO DENENTZAT KALTEGARRIA IZAN DA?***

| | EAE ES 02 MAI | LURRALDEA | | | UDALAREN TAMAINA | | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | TXIKIA | ERTAINA | HIRI-BURUA | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | BESTEAK | ABST. | ED/EE |
| MESEDEGARRIA GUZTIENTZAT | 41 | 32 | 44 | 41 | 36 | 40 | 46 | 44 | 42 | 45 | 30 | 48 | 51 | 5 | 42 | 39 | 40 |
| MESEDEGARRIA GUZTIENTZAT BAINA EZ NEURRI BEREAN | 24 | 32 | 19 | 27 | 34 | 20 | 22 | 27 | 22 | 26 | 26 | 26 | 22 | 82 | 24 | 21 | 20 |
| BATZUENTZAT MESEDEGARRIA ETA BESTE BATZUENTZAT KALTEGARRIA | 9 | 17 | 6 | 9 | 8 | 8 | 10 | 8 | 10 | 10 | 11 | 10 | 17 | 0 | 4 | 9 | 6 |
| DENENTZAT KALTEGARRIA | 4 | 4 | 3 | 4 | 3 | 3 | 5 | 3 | 4 | 2 | 15 | 2 | 1 | 13 | 3 | 4 | 2 |
| ED/EE | 23 | 15 | 27 | 19 | 20 | 28 | 18 | 19 | 22 | 17 | 18 | 15 | 10 | 0 | 27 | 27 | 32 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

UAREN DATUAK EZ DITUGU AIPATUKO, KONFIANTZA ESTATISTIKO TXIKIA ADIERAZTEN BAITU IRITZI BILKETA HONETAN AZALDU DEN LAGUN KOPURU ESKASAK.

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia Estatutuarekiko poztasuna

## (Guztirak)

**GUSTURA ZAUDE 1979AN ONARTUTAKO EUSKADIKO AUTONOMIA ESTATUTUAREKIN?**

| | EAE ES 02 MAI | EAE 88 APIR |
|---|---|---|
| BAI | 37 | 38 |
| NEURRI BATEAN | 19 | 26 |
| EZ | 20 | 23 |
| ED/EE | 24 | 13 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 |

**ETA IRAKURRIKO DIZKIZUDAN HAUETATIK ZEIN DA EGUNGO ESTATUTUAREKIN GUSTURA EZ EGOTEKO ARRAZOI NAGUSIA? ***

| | EAE ES 02 MAI |
|---|---|
| ESTATUTUA ESKASA DELAKO | 17 |
| ESTATUTUA EZ DELAKO OSORIK BETE | 16 |
| ESTATUTUA GEHIEGIZKOA DELAKO | 2 |
| ED/EE | 3 |
| GUZTIRAK | 39 |

* GALDERA HAU ESTATUTUAREKIN *NEURRI BATEAN* GUSTURA DAUDENEI EDO *GUSTURA EZ* DAUDENEI SOILIK EGITEN ZAIE

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia Estatutuarekiko poztasuna

## (Taldeka)

### GUSTURA ZAUDE 1979AN ONARTUTAKO EUSKADIKO AUTONOMIA ESTATUTUAREKIN?

| | EAE | LURRALDEA | | | JATORRIA | | | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ES 02 MAI | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | INMIGRAN-TEA | BERTAKOA FAMILIA INMIGRANTEA | BERTAKOA FAMI LIA MIXTOA | BERTAKO ETA FAMILIA ERE BAI | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | BESTE AK | ABST. | ED/EE |
| BAI | 37 | 36 | 41 | 32 | 47 | 45 | 32 | 31 | 32 | 56 | 56 | 11 | 27 | 35 | 67 | 39 | 32 | 41 |
| NEURRI BATEAN | 19 | 19 | 16 | 23 | 14 | 18 | 21 | 21 | 26 | 10 | 14 | 23 | 30 | 28 | 20 | 18 | 15 | 14 |
| EZ | 20 | 17 | 19 | 22 | 9 | 11 | 27 | 28 | 25 | 9 | 11 | 55 | 25 | 18 | 0 | 10 | 17 | 14 |
| ED/EE | 24 | 27 | 24 | 23 | 30 | 26 | 20 | 21 | 17 | 24 | 19 | 11 | 18 | 19 | 13 | 32 | 37 | 31 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

UAREN DATUAK EZ DITUGU AIPATUKO, KONFIANTZA ESTATISTIKO TXIKIA ADIERAZTEN BAITU IRITZI BILKETA HONETAN AZALDU DEN LAGUN KOPURU ESKASAK.

### ETA IRAKURRIKO DIZKIZUDAN HAUETATIK ZEIN DA EGUNGO ESTATUTUAREKIN GUSTURA EZ EGOTEKO ARRAZOI NAGUSIA?

| | EAE | LURRALDEA | | | JATORRIA | | | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ES 02 MAI | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | INMIGRAN-TEA | BERTAKOA FAMILIA INMIGRANTEA | BERTAKOA FAMI LIA MIXTOA | BERTAKO ETA FAMILIA ERE BAI | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | BESTE AK | ABST. | ED/EE |
| ESTATUTUA ESKASA DELAKO | 17 | 16 | 18 | 17 | 9 | 13 | 19 | 24 | 26 | 5 | 9 | 42 | 24 | 20 | 0 | 10 | 14 | 12 |
| ESTATUTUA EZ DELAKO OSORIK BETE | 16 | 13 | 12 | 23 | 8 | 12 | 21 | 21 | 23 | 3 | 9 | 29 | 26 | 24 | 20 | 16 | 13 | 12 |
| ESTATUTUA GEHIEGIZKOA DELAKO | 2 | 3 | 2 | 2 | 4 | 2 | 2 | 1 | 1 | 7 | 4 | 3 | 2 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| ED/EE | 3 | 4 | 3 | 3 | 2 | 3 | 6 | 3 | 2 | 5 | 2 | 5 | 2 | 2 | 0 | 2 | 3 | 3 |
| GUZTIRAK | 39 | 36 | 35 | 45 | 23 | 29 | 48 | 49 | 51 | 19 | 25 | 78 | 46 | 55 | 20 | 28 | 32 | 28 |

UAREN DATUAK EZ DITUGU AIPATUKO, KONFIANTZA ESTATISTIKO TXIKIA ADIERAZTEN BAITU IRITZI BILKETA HONETAN AZALDU DEN LAGUN KOPURU ESKASAK.

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia Estatutua eguneratzea

## (Guztirak)

| NAHIKO ZENUKE 1979KO ESTATUTU HAU EGUNERATZEA GAUR EGUNGO EGOERARA EGOKITZEKO? | EAE ES 02 MAI |
|---|---|
| BAI | 63 |
| EZ | 12 |
| ED/EE | 24 |
| GUZTIRAK | 100 |

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia Estatutua eguneratzea

## (Taldeka)

**NAHIKO ZENUKE 1979KO ESTATUTU HAU EGUNERATZEA GAUR EGUNGO EGOERARA EGOKITZEKO?**

| | EAE ES 02 MAI | EUSKARAREN EZAGUTZA | | | EUSKALDUN-ESPAINIAR ARDATZA | | | EUSKAL NAZIONALISMOA | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EZ | ZERBAIT | BAI | EUSKAL. NAGUSIKI | EUSKAL. ESPAINIARRA BESTE ETA ESPAINIARRA NAGUSIKI | ESPAINIA. NAGUSIKI | BAI | EZ-ED/EE | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | BESTEAK | ABST. | ED/EE |
| BAI | 63 | 49 | 65 | 77 | 80 | 54 | 38 | 83 | 51 | 80 | 39 | 55 | 80 | 83 | 76 | 64 | 57 | 57 | 54 |
| EZ | 12 | 17 | 12 | 7 | 6 | 17 | 24 | 5 | 17 | 6 | 32 | 20 | 9 | 6 | 9 | 5 | 11 | 10 | 12 |
| ED/EE | 24 | 33 | 23 | 16 | 14 | 29 | 38 | 12 | 32 | 15 | 29 | 25 | 11 | 11 | 15 | 30 | 33 | 33 | 34 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

UAREN DATUAK EZ DITUGU AIPATUKO, KONFIANTZA ESTATISTIKO TXIKIA ADIERAZTEN BAITU IRITZI BILKETA HONETAN AZALDU DEN LAGUN KOPURU ESKASAK.

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autonomia Estatutua aldatzea

(Taldeka)

**Estatutuaren aldaketa bat planteatuko balitz, zure ustez jarraian datozenen puntuetatik zeintzuk sartu beharko lirateke estatutu berri horretan?**

| | EAE ES 02 MAI | LURRALDEA | | | JATORRIA | | | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | INMIGRANTEA | BERTAKOA FAMILIA INMIGRANTEA | BERTAKOA FAMI LIA MIXTOA | BERTAKO ETA FAMILIA ERE BAI | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | BESTEAK | ABST. | ED/EE |
| **EUSKADIKO KOMUNITATE AUTONOMOA, NAFARROA ETA IPARRALDEAREN ARTEAN HARREMANAK SENDOTU, LURRALDE HORIEK HORRELA NAHI BADUTE** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| BAI | 62 | 60 | 55 | 75 | 46 | 55 | 70 | 73 | 84 | 30 | 49 | 94 | 90 | 71 | 62 | 52 | 53 | 50 |
| EZ | 14 | 22 | 16 | 9 | 20 | 20 | 12 | 10 | 3 | 41 | 25 | 2 | 3 | 12 | 26 | 20 | 14 | 17 |
| ED/EE | 23 | 18 | 29 | 16 | 34 | 25 | 19 | 17 | 13 | 29 | 25 | 4 | 6 | 17 | 13 | 28 | 33 | 34 |
| ***EUSKADIK BERE ETORKIZUNA ERABAKITZEKO DUEN ESKUBIDEA ONARTU*** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| BAI | 60 | 63 | 53 | 72 | 46 | 56 | 63 | 70 | 77 | 38 | 44 | 89 | 86 | 70 | 78 | 46 | 54 | 50 |
| EZ | 16 | 20 | 18 | 10 | 20 | 22 | 16 | 11 | 6 | 40 | 28 | 4 | 7 | 12 | 4 | 27 | 14 | 16 |
| ED/EE | 24 | 17 | 29 | 18 | 34 | 21 | 21 | 19 | 17 | 22 | 28 | 7 | 7 | 17 | 18 | 27 | 32 | 34 |
| **KONPETENTZIA BERRIAK HARTU AUTOGOBERNU MAILA HANDITZEKO** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| BAI | 58 | 62 | 52 | 68 | 42 | 51 | 65 | 69 | 77 | 28 | 49 | 84 | 84 | 69 | 82 | 54 | 46 | 49 |
| EZ | 16 | 19 | 17 | 11 | 20 | 23 | 15 | 10 | 5 | 43 | 25 | 6 | 6 | 12 | 0 | 16 | 18 | 15 |
| ED/EE | 26 | 19 | 31 | 21 | 38 | 26 | 21 | 20 | 18 | 30 | 26 | 10 | 10 | 19 | 18 | 30 | 36 | 36 |
| **GARANTIAK EZARRI ESTATU ESPAINOLAK EUSKADIKO AUTOGOBERNU MAILA MURRIZTU EZIN DEZAN** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| BAI | 57 | 55 | 52 | 67 | 41 | 49 | 64 | 69 | 78 | 24 | 40 | 86 | 84 | 71 | 83 | 46 | 49 | 46 |
| EZ | 17 | 26 | 17 | 12 | 23 | 23 | 14 | 12 | 5 | 45 | 31 | 5 | 8 | 12 | 4 | 18 | 14 | 18 |
| ED/EE | 26 | 18 | 31 | 21 | 37 | 29 | 22 | 20 | 16 | 30 | 29 | 9 | 8 | 18 | 13 | 36 | 37 | 36 |
| **EUSKADIK EUROPAN ETA MUNDUAN ZUZENEAN, HAU DA BITARTEKORIK GABE, HITZ EGITEKO ESKUBIDEA ONARTU** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| BAI | 56 | 49 | 50 | 67 | 39 | 46 | 63 | 68 | 78 | 18 | 38 | 90 | 83 | 64 | 82 | 49 | 47 | 45 |
| EZ | 19 | 32 | 18 | 15 | 26 | 27 | 16 | 12 | 5 | 53 | 36 | 5 | 8 | 17 | 0 | 21 | 18 | 19 |
| ED/EE | 26 | 20 | 32 | 18 | 36 | 28 | 21 | 20 | 17 | 29 | 27 | 5 | 9 | 19 | 18 | 29 | 35 | 36 |
| **EUSKAL HERRIAK HERRI BEZALA DUEN BEREZKO IDENTITATEA ONARTU** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| BAI | 51 | 45 | 46 | 64 | 30 | 41 | 59 | 66 | 74 | 12 | 30 | 91 | 82 | 59 | 46 | 46 | 45 | 39 |
| EZ | 21 | 34 | 20 | 17 | 31 | 28 | 17 | 13 | 7 | 57 | 41 | 4 | 6 | 18 | 20 | 22 | 19 | 21 |
| ED/EE | 28 | 21 | 34 | 19 | 38 | 31 | 23 | 21 | 19 | 31 | 29 | 5 | 12 | 23 | 34 | 32 | 36 | 40 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

UAREN DATUAK EZ DITUGU AIPATUKO, KONFIANTZA ESTATISTIKO TXIKIA ADIERAZTEN BAITU IRITZI BILKETA HONETAN AZALDU DEN LAGUN KOPURU ESKASAK.

# Gaia: Autogobernua EAEn

## EAE, Nafarroa eta Iparraldearen arteko harremanak

## (Taldeka)

**EUSKADI, NAFARROA ETA IPARRALDEAREN ARTEAN NOLAKO HARREMANAK NAHIKO ZENITUZKE?**

| | EAE ES 02 MAI | LURRALDEA | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | | EUSKAL NAZIONALISMOA | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EZ | ZERBAIT | BAI | BAI | EZ-ED/EE | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | BESTE AK | ABST. | ED/EE |
| ORAIN ARTE BEZALAKOAK , HIRU LURRALDE HORIEK BANATURIK | 22 | 24 | 24 | 17 | 33 | 22 | 9 | 7 | 31 | 9 | 49 | 36 | 6 | 13 | 18 | 13 | 31 | 25 | 23 |
| ORAIN ARTE BEZALAKOAK, HIRU LURRALDE HORIEK BANATURIK BAINA HARREMAN INSTITUZIONAL UGARI ETA IRAUNKORRAGOEKIN | 27 | 34 | 27 | 25 | 27 | 33 | 21 | 23 | 30 | 29 | 26 | 34 | 13 | 28 | 34 | 87 | 27 | 27 | 25 |
| EUROPAKO EUROLURRADE BAT OSATU HIRU LURRALDE HORIEKIN, BAINA GAUR EGUN DAUDEN ESTATUEN BARRUAN JARRAITUZ | 10 | 12 | 7 | 15 | 8 | 12 | 12 | 13 | 9 | 14 | 8 | 10 | 5 | 18 | 14 | 0 | 3 | 11 | 8 |
| ESTATU INDEPENDIENTE BAT OSATU HIRU LURRALDE HORIEKIN | 20 | 13 | 16 | 28 | 6 | 14 | 41 | 42 | 5 | 30 | 0 | 2 | 69 | 31 | 15 | 0 | 20 | 15 | 12 |
| BESTE AUKERA BATZUEK | 4 | 3 | 4 | 3 | 3 | 4 | 5 | 4 | 3 | 4 | 4 | 3 | 4 | 1 | 4 | 0 | 2 | 4 | 3 |
| ED/EE | 17 | 13 | 21 | 12 | 23 | 16 | 12 | 11 | 21 | 14 | 13 | 15 | 4 | 8 | 15 | 0 | 17 | 18 | 28 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

UAREN DATUAK EZ DITUGU AIPATUKO, KONFIANTZA ESTATISTIKO TXIKIA ADIERAZTEN BAITU IRITZI BILKETA HONETAN AZALDU DEN LAGUN KOPURU ESKASAK.

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Espainiako Estatuaren lurraldea antolaketa

## (Guztirak)

***Espainiako Estatuaren lurraldea antolatzeko modu batzuk irakurriko dizkizut orain; zuk zeuk zein duzu gustukoen? ****

| | EAE ES 02 MAI | ESPAINIAKO ESTATUA 96 ABEN |
|---|---|---|
| GAUR EGUNGOA BAINO ZENTRALIZATUAGOA DEN ESTATU BAT ** | 3 | 16 |
| GAUR EGUNGOA BEZALAKOA KOMUNITATE AUTONOMOEKIN OSATUTAKO ESTATUA | 25 | 45 |
| GAUR EGUN BAINO AUTONOMIA MAILA HANDIAGOA DUTEN KOMUNITATE AUTONOMOEKIN OSATUTAKO ESTATUA | 23 | 21 |
| KOMUNITATE AUTONOMOEI AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ONARTZEN DIEN ESTATUA*** | 34 | 8 |
| ED/EE | 15 | 10 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 |

* CIS (1996: 15)

** ESPAINIAKO ESTATUAN HONAKO HAU ZIOEN: *GOBERNU ZENTRAL BAKARRA DUEN ESTATU BAT (AUTONOMIADUN LURRALDERIK GABE)*

*** ESPAINIAKO ESTATUAN HONAKO HAU ZIOEN: AUTONOMIA ERKIDEGOEI ESTATU INDEPENDENTEAK IZATEKO AUKERA ONARTUKO DIEN ESTATU BAT

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Espainiako Estatuaren lurraldea antolaketa

(Taldeka)

***Espainiako Estatuaren lurraldea antolatzeko modu batzuk irakurriko dizkizut orain; zuk zeuk zein duzu gustukoen? ****

| | EAE ES 02 MAI | EUSKARAREN EZAGUTZA | | | EUSKALDUN-ESPAINIAR ARDATZA | | | EUSKAL NAZIONALISMOA | | HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETARAKO BOTO-ASMOA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ez | Zerbait | Baí | Euskal. nagusiki | Euskal. espainiarra beste eta espainiarra nagusiki | Espainia. nagusiki | Bai | Ez-Ed/Ee | EAJ/ PNV | PP | PSE-EE | BATA-SUNA | EA | IU/EB | UA* | Beste ak | Abst. | Ed/Ee |
| Gaur egungoa baino zentralizatuagoa den Estatu bat ** | 3 | 6 | 3 | 1 | 1 | 5 | 8 | 0 | 5 | 1 | 11 | 5 | 1 | 2 | 2 | 0 | 3 | 3 | 2 |
| Gaur egungoa bezalakoa komunitate autonomoekin osatutako Estatua | 25 | 35 | 28 | 10 | 6 | 41 | 49 | 6 | 37 | 9 | 57 | 45 | 2 | 9 | 19 | 37 | 29 | 26 | 29 |
| Gaur egun baino autonomia maila handiagoa duten komunitate autonomoekin osatutako Estatua | 23 | 23 | 27 | 19 | 21 | 27 | 17 | 22 | 23 | 28 | 16 | 28 | 10 | 24 | 35 | 33 | 23 | 21 | 22 |
| Komunitate autonomoei autodeterminazio eskubidea onartzen dien Estatua*** | 34 | 15 | 30 | 59 | 60 | 12 | 7 | 62 | 16 | 52 | 3 | 9 | 78 | 58 | 37 | 30 | 32 | 29 | 23 |
| Ed/Ee | 15 | 21 | 12 | 12 | 12 | 15 | 19 | 9 | 19 | 11 | 12 | 13 | 9 | 8 | 7 | 0 | 13 | 21 | 24 |
| Guztirak | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

UAren datuak ez ditugu aipatuko, konfiantza estatistiko txikia adierazten baitu iritzi bilketa honetan azaldu den lagun kopuru eskasak.

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autodeterminazioa eskubidea

## (Guztirak)

***Entzun duzu 1990ean Eusko Legebiltzarrean autodeterminazio eskubidearen aldeko proposamen bat onartu zela?***

| | EAE ES 02 MAI | EAE 90 OTSA* |
|---|---|---|
| BAI | **49** | 73 |
| EZ | **42** | 19 |
| ED/EE | **9** | 7 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 |

* 90. URTEAN HONAKO HAU ZIOEN GALDERAK HITZEZ HITZ: ENTZUN DUZU EUSKO LEGEBILTZARRAK DUELA GUTXI AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ALDARRIKATZEKO PROPOSAMEN BAT ONARTU DUELA?

***Euskal gizartearen zati batek autodeterminazio eskubidea Euskadirentzat eskatzen duenean, zer uste duzu eskatzen duela?***

| | EAE ES 02 MAI | EAE 00 URT | EAE 98 URR |
|---|---|---|---|
| ORAINTXE BERTAN INDEPENDIENTEAK IZATEA | **19** | 23 | 16 |
| EUSKADIREN ITORKIZUNA POLITIKOARI BURUZ IRABAKITZEKO ESKUBIDEA | **62** | 63 | 64 |
| ED/EE | **19** | 14 | 21 |
| GUZTIRAK | 100 | 100 | 100 |

# Gaia: Autogobernua EAEn

## Autodeterminazioa eskubidea

## (Taldeka)

### *Entzun duzu 1990ean Eusko Legebiltzarrean autodeterminazio eskubidearen aldeko proposamen bat onartu zela?*

